# Xedapen Orokorrak

## JUSTIZI, EKONOMI, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

### Zk-4929

204/1997 DEKRETUA, irailaren 16koa, Gizarte Ongizaterako Euskal Kontseiluaren osaketari eta funtzionamendu-erregimenari buruzkoa.

Gizarte Ongizaterako Euskal Kontseiluaren jatorria Gizarte Zerbitzuei buruzko maiatzaren 20ko 6/1982 Legean dago; bertan, gizarte zerbitzuen alorrean diharduten erakundeen partehartzea eta zerbitzu horien erabiltzaileena bideratzen duen kontsultarako organo gisa definitzen baita.

Kontseiluaren bilakabidea gorabeheratsua izan da: tarteka dezenteko lana egin du, tarteka funtzionamendu-arazoak izan ditu eta eraginkortasuna galdu.

Guztiarekin ere, kontuan hartuta gizarte-zerbitzuen alorra euskal administrazio publikoek gehien garatu dutenetariko bat dela eta alor horretako jardunbideak oso aldakorrak direla, komenigarria da kontsulta-organo partehartzaile hori indartzea. Hartara, aipaturiko administrazioak hobeki egokitu ahalko dira, eta behar bezalako aurrerapenarekin, gizarte-zerbitzuen alorreko berrikuntzetara.

Horixe bera hartu du gogoan gizarte-zerbitzuei buruzko lege berria idatzi duen legegileak, zeren eta legean Gizarte Ongizaterako Euskal Kontseilua berriro aipatzen baita, eta aipatu ere indarberrituta aipatzen da.

Gizarte Zebitzuei buruzko urriaren 18ko Legeak bere 15. atalean xedatzen duenaren arabera, Euskal Autonomi Elkarteko administrazio publikoek bermatu egingo dute herritarrek gizarte–zerbitzuen plangintza eta ebaluazioa egiten parte hartuko dutela.

Helburu horrekin, 16. atalean, Gizarte Ongizaterako Euskal Kontseilua sortu zen, aholkularitza-organo gisa; eta 16. eta 17. ataletan, organo horren osaketa eta funtzionamenduaren ildo nagusiak ezarri ziren.

Ondorioz, Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuaren proposamenez eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 1997ko irailaren 16an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

*1. atala.*– Helburua.

Dekretu honen helburua Ongizaterako Euskal Kontseiluaren osaketa eta funtzioak arautzea da, Gizarte Zerbitzuei buruzko urriaren 18ko 5/1996 Legearen 16. eta 17. ataletan xedatutakoa kontuan hartuz.

*2. atala.*– Atxikipena eta osaketa.

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, ECONOMÍA, TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL

### N°-4929

DECRETO 204/1997, de 16 de septiembre, de composición y régimen de funcionamiento del Consejo Vasco de Bienestar Social.

El Consejo Vasco de Bienestar Social tiene sus orígenes en la Ley 6/1982, de 20 de mayo, sobre «Servicios Sociales», como un órgano de carácter consultivo que da cabida a la participación de las entidades que trabajan en el campo de los servicios sociales así como a los usuarios de estos mismos servicios.

La ya larga historia de este Consejo ha sido desigual, pasando por épocas de una razonable actividad y por otras donde los problemas surgidos en su funcionamiento lo hicieron poco operativo.

Sin embargo, dado que el ámbito de los servicios sociales es uno de los que más desarrollo ha tenido en la acción de las Administraciones Públicas Vascas y que las líneas de intervención en este campo son cambiantes, resulta aconsejable potenciar este órgano consultivo y de participación que permita a estas Administraciones responder con la anticipación necesaria a las nuevas realidades en este campo de los servicios sociales.

El legislador así lo ha entendido en la redacción de la nueva ley de servicios sociales e introduce de nuevo el Consejo Vasco de Bienestar Social al que se quiere dar un nuevo impulso.

La Ley 5/1996, de 18 de octubre, de Servicios Sociales establece en su artículo 15 que las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma garantizarán la participación de la ciudadanía en la planificación y evaluación de los servicios sociales.

Con este fin se crea, en su artículo 16, el Consejo Vasco de Bienestar Social como órgano de carácter consultivo y establece, en los artículos 16 y 17, las líneas generales de su composición y funciones.

En su virtud, a propuesta del Consejero del Departamento de Justicia, Economía, Trabajo y Seguridad Social, y previa deliberación del Consejo de Gobierno en su reunión del 16 de septiembre de 1997.

DISPONGO:

*Artículo 1.*– Objeto.

El objeto del presente Decreto es regular la composición y funciones del Consejo Vasco de Bienestar Social desarrollando lo establecido en los artículos 16 y 17 de la Ley 5/1996, de 18 de octubre, de servicios sociales.

*Artículo 2.*– Adscripción y composición.

Gizarte-zerbitzuen eskumena duen sailari atxikia egongo da Ongizaterako Euskal Kontseilua; egoitza Vitoria-Gasteizen izango du, eta hauek izango dira bere organoak:

a) Osoko Bilkura.

b) Batzorde iraunkorrak.

c) Batzorde tekniko espezializatuak.

*3. atala*.– Osoko Bilkuraren osaketa.

1.– Hauek egongo dira ordezkatuta Kontseiluaren Osoko Bilkuran: Jaurlaritza, foru aldundiak eta udalak; halaber, erakunde sindikalak, norbanako erabiltzaileen erakundeak, gizarte–bolondresenak eta gizarte-zerbitzuen alorrean diharduten profesionalen erakundeak.

2.– Honako hauek osatzen dute Kontseiluaren Osoko Bilkura:

a) Administrazio publikoen aldetik:

1.– Gizarte-zerbitzuen eskumena duen saileko sailburua. Lehendakari gisa arituko da.

2.– Gizarte Ongizaterako zuzendaria. Lehendakariorde gisa arituko da.

3.– Bokal bat, gizarte-zerbitzuen eskumena duen sailaren izenean. Idazkari gisa arituko da.

4.– Bokal bat, osasunaren eskumena duen sailaren izenean.

5.– Bokal bat, kontsumoaren eskumena duen sailaren izenean.

6.– Bokal bat, hezkuntzaren eskumena duen sailaren izenean.

7.– Bokal bat, etxebizitzaren eskumena duen sailaren izenean.

8.– Bokal bat, kulturaren eskumena duen sailaren izenean.

9.– Bokal bat, lanaren eskumena duen sailaren izenean.

10.– Bokal bat, emakumearen sustapenaren eskumena duen sailaren izenean.

11.– Bokal bana, hiru lurralde historikoetako foru aldundien izenean.

12.– Hiru bokal, Euskal Autonomi Elkarteko udalen izenean.

b) Sindikatuen eta gizarte- eta profesional-erakundeen aldetik:

1.– Bokal bat, Jubilatu eta Pentsionisten Elkarte Probintzialen EAEko Federazioaren izenean.

2.– Bokal bat, Euskal Autonomi Elkarteko Minusbaliatu Fisikoen Konfederazio Koordinatzailearen izenean.

El Consejo Vasco de Bienestar Social está adscrito al Departamento competente en materia de servicios sociales, tiene su sede en Vitoria-Gasteiz y está compuesto por los siguientes órganos:

a) El Pleno.

b) Las Comisiones Permanentes.

c) Las Comisiones Técnicas Especializadas.

*Artículo 3*.– Composición del Pleno.

1.– En el Pleno del Consejo estarán representados el Gobierno, las Diputaciones Forales y los Ayuntamientos, así como las organizaciones sindicales, las de personas usuarias, las de voluntariado social y las de profesionales que trabajen en el campo de los servicios sociales.

2.– La composición del Pleno será la siguiente:

a) Por parte de las Administraciones Públicas:

1.– El Consejero titular del Departamento competente en materias de servicios sociales, que actuará como Presidente.

2.– Director de Bienestar Social, que actuará como Vicepresidente.

3.– Un/a vocal, en representación del Departamento competente en materia de servicios sociales, que actuará como Secretario.

4.– Un/a vocal en representación del Departamento competente en materia de sanidad.

5.– Un/a vocal en representación del Departamento competente en materia de consumo.

6.– Un/a vocal en representación del Departamento competente en materia de educación.

7.– Un/a vocal en representación del Departamento competente en materia de vivienda.

8.– Un/a vocal en representación del Departamento competente en materia de cultura.

9.– Un vocal en representación del Departamento competente en materia de trabajo.

10.– Un vocal en representación del Departamento competente en materia de promoción de la mujer.

11.– Tres vocales en representación de cada una de las Diputaciones Forales de los tres Territorios Históricos.

12.– Tres vocales en representación de los Ayuntamientos de la Comunidad Autónoma Vasca.

b) Por parte de las organizaciones sociales, sindicales y de profesionales:

1.– Un/a vocal en representación de la Federación Territorial de Asociaciones Provinciales de Pensionistas y Jubilados del País Vasco.

2.– Un/a vocal en representación de la Confederación Coordinadora de Disminuidos Físicos de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

3.– Bokal bat, Adimen-urritasuna duten Pertsonen aldeko Elkarteen Euskal Federazioaren izenean (FEVAS).

4.– Bokal bat, Gaixo Psikikoen eta Senideen Elkarteen Euskadiko Federazioaren izenean (FEDEAFES).

5.– Bokal bat, emakumearen alorrean lan egiten duten elkarteen izenean.

6.– Bokal bat, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren izenean.

7.– Bokal bat, hiesaren alorrean lan egiten duten erakundeen izenean.

8.– Bokal bat, droga-menpetasunaren prebentzioan eta gizarteratzean lan egiten duten erakundeen izenean.

9.– Bokal bat, Etorkinak laguntzeko Euskadiko GKEen Koordinadoraren izenean.

10.– Bokal bat, gizarteratzearen alorrean lan egiten duten erakundeen izenean.

11.– Bokal bat, kontsumitzaileen elkarte edo federazioen izenean.

12.– Bokal bat, Euskal Autonomi Elkarteko gizarte-langileen elkargo ofizialen izenean.

13.– Lau bokal, sindikatuen izenean.

3.– Atal honetako 2 b) idazatiaren 5, 7, 8 eta 11 epigrafeetan aipatzen diren erakundeen lan-eremua Euskal Autonomi Elkartea izango da.

*4. atala.–* Bokalak izendatzea.

Honela egingo da bokalen izendapena:

a) Jaurlaritzako sailen izenean jardungo diren bokalak, sail bakoitzeko sailburu titularrak izendatuko ditu.

b) Foru aldundien izenean jardungo diren bokalak, aldundian aldundiko funtzionamendu-arauak baliatuz izendatuko dira.

c) Euskal Autonomi Elkarteko udalen izenean jardungo diren bokalak, Euskal Udalen Elkarteak (EUDEL) izendatuko ditu.

d) Sindikatuen eta gizarte- eta profesional-erakundeen aldetik jardungo diren bokalak, erakunde horietxek izendatuko dituzte. Bokalak erakunde-talde bat ordezkatzen duenean, Gizarte Ongizaterako zuzendariak lan-eremua Euskal Autonomi Elkartea duten erakunde guztiak deituko ditu pertsona hori aukeratzeko. Deialdi hori egin eta bi hilabete baino lehen bokal hori izendatzen ez bada, Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuak arduratuko da izendapena egiteaz.

3.– Un/a vocal en representación de la Federación Vasca de Asociaciones en favor de personas con deficiencia mental (FEVAS).

4.– Un/a vocal en representación de la Federación de Euskadi de Asociaciones de familiares y enfermos Psíquicos (FEDEAFES).

5.– Un/a vocal en representación de las entidades que trabajan en el campo de la mujer.

6.– Un/a vocal en representación del Consejo de la Juventud de Euskadi.

7.– Un/a vocal en representación de las entidades que trabajan en el campo del SIDA.

8.– Un/a vocal en representación de las entidades que trabajan en el campo de la prevención e inserción en drogodependencias.

9.– Un/a vocal en representación de la Coordinadora de ONG's de Euskadi de Apoyo a Inmigrantes.

10.– Un/a vocal en representación de las entidades que trabajan en la inserción.

11.– Un/a vocal en representación de las Asociaciones o Federaciones de los/as consumidores/as.

12.– Un/a vocal en representación de los Colegios Oficiales de Trabajadores Sociales del País Vasco.

13.– Cuatro vocales en representación de las Organizaciones Sindicales.

3.– Las entidades a que se refieren los epígrafes 5, 7, 8 y 11 del apartado 2 b) del presente artículo, serán aquellas cuyo ámbito de actuación es la Comunidad Autónoma del País Vasco.

*Artículo 4.–* Designación de vocales.

La designación de los/las vocales se hará de la siguiente manera:

a) Los/las vocales en representación de Departamentos del Gobierno, serán designados por los respectivos Consejeros titulares.

b) Los/las vocales en representación de las Diputaciones Forales serán designados de acuerdo con las normas de funcionamiento de sus respectivas corporaciones.

c) Los/las vocales en representación de los Ayuntamientos de la Comunidad Autónoma del País Vasco, serán designados por la Asociación Vasca de Municipios (E.U.D.E.L.).

d) Los/las vocales en representación de las organizaciones sociales, sindicales y de profesionales serán designados por ellas mismas. Cuando el/la vocal deba representar a un grupo de entidades, el Director de Bienestar Social convocará a todas aquellas cuyo ámbito de actuación sea toda la Comunidad Autónoma del País Vasco para que procedan a designar el/la vocal que les corresponda. Si no se hubiera efectuado esta designación en el plazo de dos meses desde la convocatoria realizada por el Director de Bienestar Social aludida con anterioridad, el Consejero de Justicia, Economía, Trabajo y Seguridad Social procederá a designar el/la vocal correspondiente.

*5. atala.*– Karguen iraupena.

1.– Lehengo 3.2 ataleko a) idazatian adierazitako bokalen karguen iraupena 3 urtekoa izango da, salbu eta izendapena burutu duen pertsonak edo erakundeak berariazko errebokaziorik egiten ez badu. Kasu horretan, iraunaldia betetzeko falta den denboran jardungo luke ordezkoak.

2.– Atal bereko b) idazatian adierazitako bokalen karguen iraupena, berez, 3 urtekoa izango da; hori baino lehen, ordea, erakunde izendatzaileek ordezkatu egin ditzakete bokalok. Epea bukatutakoan, bestalde, berriro izendatu ahal dira pertsona berberak.

*6. atala.*– Gizarte Ongizaterako Euskal Kontseiluaren egitekoak.

Honako hauek dira Gizarte Ongizaterako Euskal Kontseiluaren egitekoak:

a) Aldez aurretiko eta derrigorrezko txostenak egitea —beti ere eskatzen direnetik hamabost egun gabe—, gai hauei buruz:

1.– Gizarte-zerbitzuen alorreko lege-aurreproiektuak.

2.– Gizarte-zerbitzuen alorreko dekretu eta araudien proiektuak.

3.– Eremua Euskal Autonomi Elkartea duten programa eta plan orokorrak edo sektorialak.

b) Gizarte-zerbitzuen jardunarekin zerikusia duen edozer gairi buruzko aholkularitza eta proposamen eta ekimenak aurkeztea Jaurlaritzari.

c) Ondorengo informazioa jasotzea Jaurlaritzatik:

1.– Gizarte-zerbitzuei buruzko aurrekontu-programak, beti ere onartuak izan baino lehen.

2.– Programa eta jarduketa-plan orokorren, sektorialen edo lurraldekoen segimendua eta ebaluazioa.

3.– Aldian aldian, lege hau hausteagatik Euskal Autonomi Elkartean ezarritako zigorrak.

4.– Aldian aldian, erakunde pribatuei emandako dirulaguntzak.

d) Urtero txosten bat egitea, Euskal Autonomi Elkarteko gizarte-zerbitzuen egoerari buruzkoa, Jaurlaritzari bidaltzeko.

e) Gizarte-zerbitzuei buruzko 5/1996 Legearen babesean sortzen diren udal kontseiluak eta lurraldekoak sustatzea eta laguntzea.

f) Gizarte-zerbitzuei buruzko 5/1996 Legearen babesean edo indarrean dauden legeen babesean eslei dakizkiokeen gainontzekoak.

*7. atala.*– Batzorde Iraunkorraren egitekoak eta erregimena.

1.– Batzorde Iraunkorra delegatutako entitatea izango da eta, ondorioz, bere egitekoak eta funtzionamendu-erregimena Kontseiluaren Araudian ezarriko dira.

*Artículo 5.*– Duración de los cargos.

1.– La duración del cargo de los/las vocales a que se refiere el apartado a) del artículo 3, 2, será de 3 años, salvo revocación expresa por parte de la persona o institución responsable del nombramiento, en cuyo caso su sustituto/a lo será por el tiempo que reste de dicho mandato.

2.– La duración del cargo de los/las vocales a los que se refiere el apartado b) del mismo artículo, será de 3 años, pudiendo ser reelegidos al término de su mandato o sustituidos antes de finalizarlo por las instituciones que les hubieran designado.

*Artículo 6.*– Funciones del Consejo Vasco de Bienestar Social.

Son funciones del Consejo Vasco de Bienestar Social las siguientes:

a) Emitir informe preceptivo previo, en el plazo de quince días desde que se le requiera, en relación a:

1.– Anteproyectos de Ley en materia de Servicios Sociales.

2.– Proyectos de Decretos y reglamentos en materia de Servicios Sociales.

3.– Elaboración de programas y planes generales o sectoriales cuyo ámbito territorial sea la Comunidad Autónoma del País Vasco.

b) Asesorar y elevar al Gobierno propuestas e iniciativas sobre cualquier materia relativa a la acción de los Servicios Sociales.

c) Ser informado por el Gobierno Vasco de:

1.– Los programas presupuestarios, relativos a los servicios sociales, con carácter previo a su aprobación.

2.– El seguimiento y evaluación del cumplimiento de los programas y planes de actuación de ámbito general, sectorial o territorial.

3.– Con carácter periódico, las sanciones impuestas en el ámbito de la Comunidad Autónoma por incumplimiento de esta Ley.

4.– Con carácter periódico, la concesión de subvenciones y ayudas a entidades privadas.

d) Emitir un informe anual, que remitirá al Gobierno, sobre el estado de los servicios sociales en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

e) Promoción y apoyo a los Consejos Territoriales y Municipales que, al amparo de la Ley 5/1996, de servicios sociales, se creen.

f) Cualquier otra que se le atribuya en el desarrollo reglamentario de la Ley 5/1996, de servicios sociales, o pueda atribuirle la normativa vigente.

*Artículo 7.*– Funciones y régimen de la Comisión Permanente.

1.– Se constituirá una Comisión Permanente con carácter delegado y, por tanto, sus funciones y régimen de funcionamiento se regularán en el Reglamento del Consejo.

2.– Batzorde iraunkor sektorialak sortu ahalko dira, Kontseiluaren Osokoaren erabakiz edo araudian horrela xedatuz gero, gai zehatzak aztertzeko.

*8. atala.–* Batzorde Iraunkorraren osaketa.

1.– Hauek osatuko dute Batzorde Iraunkor Delegatua:

a) Kontseiluaren lehendakaria. Batzorde Iraunkorreko lehendakaria ere izango da.

b) Kontseiluaren lehendakariordea. Batzorde Iraunkorreko lehendakaria falta denean, haren ordez jardungo du.

c) Bokal bat aldundien izenean, aldundietako bokalen artean aukeratua.

d) Bokal bat udalen izenean, udaletako bokalen artean aukeratua.

e) Lau bokal sindikatuen, erabiltzaileen, gizarte-bolondresen eta profesionalen erakundeen aldetik.

2.– Batzorde iraunkor sektorialen osaketa unean-unean ezarritakoa izango da, baina beti ere paritarioa administrazio publikoetako eta Gizarte Ongizaterako Euskal Kontseiluko ordezkarien artean.

*9. atala.–* Batzorde tekniko espezializatuak.

Batzorde tekniko espezializatuen eraketa, osaketa, helburuak eta funtzionamendu-arauak Kontseiluko Osokoaren eskumenekoak dira. Batzordeak iraunkorrak edo aldibaterakoak izan daitezke.

*10. atala.–* Funtzionamendu-araudia.

Kontseiluko Osoko Bilkurari dagokio bere funtzionamendu–araudia gertatzea eta aldatzea, eta gizarte–zerbitzuen eskumena duen saileko titularrak onartu beharko du.

*11. atala.–* Bilerak deitzea.

1.– Kontseiluko Osokoa sei hilabeterik behin bilduko da gutxienez, edo lehendakariak bere kabuz horretarako deia egiten duenean edo funtzionamendu-araudiak ezarritako gorabeheraren bat gertatzen denean.

2.– Batzorde Iraunkorra eta batzorde teknikoak euren lehendakariek dei egin ondoren bilduko dira, Kontseiluko araudiak finkatzen dituen baldintzetan.

*12. atala.–* Urteko txostena.

Kontseiluak bere jarduketen txostena gertatu eta aurkeztu beharko du urtero gizarte-zerbitzuen eskumena duen sailaren aurrean.

*13. atala.–* Erregimen ordeztailea.

Gizarte Ongizaterako Euskal Kontseiluaren barne–funtzionamenduari buruz dekretu honetan nahiz barne-araudian jaso gabeko guztiaren gainean Herri-

2.– Podrán constituirse, por acuerdo del Pleno del Consejo o determinación normativa, Comisiones Permanentes Sectoriales para el tratamiento de determinadas materias.

Artículo 8.– Composición de la Comisión Permanente.

1.– La composición de la Comisión Permanente Delegada es la siguiente:

a) El Presidente del Consejo, que lo será también de la Comisión Permanente.

b) El Vicepresidente del Consejo, que actuará de Presidente de la Comisión Permanente en ausencia del mismo.

c) Un/a vocal representante de las Diputaciones, elegido por los/las vocales representantes de las mismas.

d) Un/a vocal representante de los Ayuntamientos, elegido por los/las vocales representantes de los mismos.

e) Cuatro vocales representantes de las organizaciones sindicales, de personas usuarias, del voluntariado social y de profesionales.

2.– La composición de las Comisiones Permanentes Sectoriales que se constituyan será la que se determine, que en todo caso habrá de ser paritaria entre los representantes de las distintas Administraciones Públicas y los de las organizaciones componentes del Consejo Vasco de Bienestar Social.

*Artículo 9.–* Comisiones Técnicas Especializadas.

La creación, composición, fines y normas de funcionamiento de las Comisiones Técnicas Especializadas son competencia del Pleno del Consejo. Estas podrán ser constituidas de modo permanente o coyuntural.

*Artículo 10.–* Reglamento de funcionamiento.

Corresponderá al Pleno del Consejo, la elaboración y modificación de su reglamento de funcionamiento, que deberá ser aprobado por el titular del Departamento competente en materia de servicios sociales.

*Artículo 11.–* Convocatoria de reuniones.

1.– El Pleno del Consejo se reunirá, cuando menos, una vez cada semestre, así como cuando lo convoque su Presidente por propia iniciativa o en las circunstancias que fije el Reglamento de funcionamiento.

2.– La Comisión Permanente y las Comisiones Técnicas se reunirán, previa convocatoria de sus respectivos presidentes, en las circunstancias que fije el Reglamento del Consejo.

*Artículo 12.–* Memoria anual.

El Consejo deberá elaborar y presentar ante el Departamento competente en materia de servicios sociales una memoria anual explicativa de sus actividades.

*Artículo 13.–* Régimen supletorio.

En todo lo no regulado sobre el funcionamiento interno del Consejo Vasco de Bienestar Social, tanto por el presente Decreto, como por su Reglamento interno,

Administrazioen Lege-Jaurbideari eta Guztientzako Administrazio-Jaundunbideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen II. idazpuruko II. II. atalburuan xedatutakoa aplikatuko da.

*14. atala.–* Funtzionamendu-gastuak.

Gizarte Ongizaterako Euskal Kontseiluaren funtzionamendu-gastuak —Osokoa, Batzorde Iraunkorra eta Batzorde Tekniko Espezializatuak— gizarte-zerbitzuen eskumena duen sailaren aurrekontuetako kredituen kontura izango dira.

*15. atala.–* Dietak eta kalte-ordainak.

Kontseilukideek eta batzorde teknikoetako kideek otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan eta indarrean dauden gainerako arauetan xedatutakoari jarraiki finkatzen diren diru-kopuruak eskura ditzakete, dieta eta kalteordain gisa.

INDARGABETZE XEDAPEN BAKARRA

Indargabetu egiten da abenduaren 15eko 393/1987 Dekretua.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.–* Araudia garatzea.

Ahalmena ematen zaio Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuari, dekretu hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapenak eman ditzan.

*Bigarrena.–* Indarrean jartzea.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean dekretu hau.

Vitoria-Gasteizen, 1997ko irailaren 16an.

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte
Segurantza sailburua
RAMÓN JÁUREGUI ATONDO.

será de aplicación lo previsto en el Capítulo II del Título II de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

*Artículo 14.–* Gastos de funcionamiento.

Los gastos de funcionamiento del Consejo Vasco de Bienestar Social -Pleno, Comisión Permanente y Comisiones Técnicas Especializadas- serán con cargo a los créditos presupuestarios del Departamento competente en materia de servicios sociales.

*Artículo 15.–* Dietas e indemnizaciones.

Las/los miembros del Consejo y de las Comisiones Técnicas podrán percibir, en concepto de dietas e indemnizaciones, aquellas cantidades que se establezcan, de acuerdo, en todo caso, con lo dispuesto por el Decreto 16/1993, de 2 de febrero, y demás normativa vigente.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA ÚNICA

Queda derogado el Decreto 393/1987 de 15 de diciembre.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.–* Desarrollo reglamentario.

Se faculta al Consejero del Departamento de Justicia, Economía, Trabajo y Seguridad Social para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo y aplicación del presente Decreto.

*Segunda.–* Entrada en vigor.

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 16 de septiembre de 1997.

El Lehendakari,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Justicia, Economía,
Trabajo y Seguridad Social,
RAMÓN JÁUREGUI ATONDO.